## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## 1251

42/2006 DEKRETUA, otsailaren 28koa, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituena.

Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dira eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu. Bada, dekretu horrek honako egitekoak eta jardun-arloak esleitu zizkion Ogasun eta Herri Administrazio sailari:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak zuzendu, prestatu, kudeatu eta segitu eta kontrolatzea, eta bai aipatutakoon gaineko aurrekontu-programazioa egitea ere.

b) Barneko kontrol ekonomikoa, kontabilitatea eta kontabilitateko erantzukizunak.

c) Politika finantzarioa eta finantza-erakundeekiko harremanak.

d) Diruzaintza, zorpetzea eta bermeak ematea.

e) Aseguru-bitartekaritzako jarduera baimendu eta kontrolatzea.

f) Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eskumenak errespetatuta.

g) Ondarea eta kontratazioa.

h) Ekonomia Ituna, Estatuarentzako kupoa eta lurralde historikoen ekarpenak.

i) Transferentzien helburu diren zerbitzu eta eskumenen balioespena, eta bai Gizarte Segurantza finantzatzeari dagokionez Estatuarekiko fluxu finantzarioak zehaztea ere.

j) Zerga-administrazioa eta administrazioarekiko diru-erreklamazioak.

k) Ekonomia planifikatzea.

l) Politika erregionala.

m) Azterlan eta metodo ekonomikoak. Abagunea eta aurreikuspen ekonomikoa.

n) Lehiaren defentsa.

o) Estatistika.

p) Funtzio publikoa, administrazio-antolaketa eta langileen araubide juridikoa eta ordainsari-araubidea.

q) Sail bat baino gehiagoren zerbitzuak eta argitalpen-jarduera.

r) Informazio- eta telekomunikazio-sistema korporatiboak.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

## 1251

DECRETO 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

El artículo 7 del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó al Departamento de Hacienda y Administración Pública las relativas a:

a) Dirección, elaboración, gestión general, seguimiento y control de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, así como la programación presupuestaria relativa a los mismos.

b) Control económico interno, contabilidad y responsabilidades contables.

c) Política financiera y relaciones con las entidades financieras.

d) Tesorería, endeudamiento y prestación de garantías.

e) Autorización y control de la actividad de mediación de seguros.

f) Entidades de previsión social, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

g) Patrimonio y contratación.

h) Concierto Económico, cupos al Estado y aportaciones de los Territorios Históricos.

i) Valoración de competencias y/o servicios objeto de transferencia, así como determinación de los flujos financieros con el Estado en relación a la financiación de la Seguridad Social.

j) Administración tributaria y reclamaciones económico-administrativas.

k) Planificación económica.

l) Política regional.

m) Estudios y métodos económicos. Coyuntura y previsión económica.

n) Defensa de la competencia.

o) Estadística.

p) Función pública, organización administrativa y régimen jurídico y retributivo del personal.

q) Servicios multidepartamentales y actividad editorial.

r) Sistemas de información y telecomunicaciones corporativas.

s) Legeekin eta erregelamenduekin bat etorriaz, erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta Sailari atxikitako sozietate publikoak zuzentzea.

t) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainontzeko ahalmenak.

Dekretu honek, aipatutako arauetako azken xedapenetatik lehenengoan jasotakoaren arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen ditu, xedapen horietan adierazitako antolamendurako irizpideak eta aurreikuspenak kontuan hartuta. Lau sailburuordetzak osatzen dute egitura hori eta horien barruan sartzen dira Saileko alorrik garrantzitsuenak.

Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetzaren helbururik behinena Administrazioaren eraikin eta egoitzei buruzko politika zehaztea da; beste hauek bere helburuak dira: Administrazioa Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusiak Administrazioa arrazionalizatu, hobetu eta modernizatzeko emandako irizpideak gauzatzea, eta, halaber, helburutzat herritarrekiko erlazioa duten proiektuei dagokienez ere. Hauetaz ere arduratuko da: normalkuntza eta homologazio egitekoez; hainbat sailetako eraikin eta zerbitzuen kudeaketaz; artxibo-sistemaz; eta argitaratze-jardueraz. Informazio-sistema, telefonia, azpiegiturak eta sareen zerbitzu edo telekomunikazioen alorrean eta ondare, kontratazio eta arrisku zein aseguruen kudeaketaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen eskumenen ondorioz sortutako araubide orokorrak zuzentzea eta ikuskatzea ere organo horri dagozkio. Zerbitzu Zuzendaritza dugu azkenik, hots, Sail guztiari dagozkion langileria, aurrekontu kudeaketa, kontratazio eta beste alor batzuetan eskumena duen sailarteko organoa.

Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzari Jaurlaritzaren hainbat alorretan epe ertaineko ekonomia plangintza zuzentzeko eta koordinatzeko egitekoak esleitu zaizkio. Alorrak hauek dira: ekonomia azterlan, koiuntura eta aurreikuspen ekonomikoaren politika; Jaurlaritzak taxututako egiturazko politiken segimendua egiteko, aurrekontu eta gastu publikoa programatzea; eta eskualdeen politikari eta fondo komunitarioei dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoak egin beharreko jarduerak; lehiaren defentsa egitea; eta estatistikak landu eta argitaratzea. Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak prestatzeaz, horien kudeaketa orokorra egiteaz eta horiei segimendua eta kontrola egiteaz ere arduratuko da, bai eta barneko kontrol ekonomikoa, kontu-ikuskaritza, kontabilitate eta kontabilitate-erantzukizunei dagozkien eskumenak erabiltzeaz ere. Euskal Estatistika Erakundea (EEE) ere atxikiko zaio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari, hain zuzen ere Sailburuordetza honen bidez. Azkenik, hierarkia-egiturakoa izan barik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia atxikitzen da.

s) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

t) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

De conformidad con lo previsto en la Disposición Final Primera de dicha norma, el presente Decreto establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, siguiendo los criterios organizativos y previsiones señalados en la referida disposición. Dicha estructura se articula en cuatro Viceconsejerías que atienden las principales áreas del Departamento.

La Viceconsejería de Administración y Servicios tiene por objeto fundamental la determinación concreta de la política sobre sedes y edificios administrativos y la ejecución de las directrices dictadas por la Secretaría General de Modernización y Administración Electrónica en relación con la racionalización, mejora y modernización de la Administración y los proyectos que tengan por finalidad la relación con los administrados. Se ocupa, asimismo, de las tareas de normalización y homologación y de la gestión de los servicios y edificios multidepartamentales, del sistema de archivos y de la actividad editorial. Del mismo modo, los regímenes generales derivados de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma tanto en materia de sistemas de información, telefonía, infraestructuras y servicios de redes o telecomunicaciones como en materia de patrimonio, contratación y gestión de riesgos y seguros son dirigidas y supervisadas por este órgano. Se completa con la Dirección de Servicios, órgano intradepartamental competente en materias de naturaleza común a las diversas áreas del Departamento.

La Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico tiene encomendadas la dirección y coordinación de la planificación económica a medio plazo del Gobierno, de las políticas de estudios económicos, coyuntura y previsión económica, de la programación en materia de presupuesto y gasto público en seguimiento de políticas estructurales marcadas por el ejecutivo vasco, de las actuaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de política regional y fondos comunitarios, de la defensa de la competencia, así como de la elaboración y publicación de estadísticas. Por otro lado, se ocupa de la elaboración, gestión general, seguimiento y control de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma y del ejercicio de las competencias relativas a control económico interno, auditoría, contabilidad y responsabilidades contables. Asimismo, se encuentra adscrito al Departamento de Hacienda y Administración Pública, a través de esta Viceconsejería, el organismo autónomo administrativo Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (EEE/IVE). Por último, se adscribe, sin formar parte de su estructura jerárquica, el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia.

Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari dagokio Autonomia Erkidegoaren eremuan giza baliabideen politika, kalitatezko zerbitzu publiko batzuei erantzungo diena, planifikatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko ardura bere gain hartzea. Zerbitzu publikoak etengabe garatzen egoteak sortzen dituen beharretara egungo plantillak erraz egokitzeko behar diren mekanismoen ezarketa programatzea eta koordinatzea ere badagozkio. Horretarako, langileei buruzko politika prestatu, zuzendu eta gauzatu egiten du eta langileon araubide juridikoaz eta ordainketen araubideaz, eta oro har, langileen ohiko kudeaketaz arduratzen da. Halaber, prestakuntzaren alorreko artezpideak prestatzeaz, lan-kontratukoen eta funtzionarioen ordezkariekiko negoziazioaz eta harremanez, arriskuak prebenitzeko zerbitzuen kudeaketaz eta laneko baldintzak hobetzeko diren gainerako gizarte zerbitzuez ere arduratzen da.

Ekonomia itunei, Estatuarentzako kupoei eta lurralde historikoen ekarpenei dagokienez, administrazio honek izango dituen eskumen eta egitekoak bere baitan biltzen dituen organoa da Ogasun eta Finantza Sailburuordetza. Aldi berean, administrazio honen eta besteen artean eman daitezen eskumenen eskualdaketak eta/edo zerbitzuak –aktiboak zein pasiboak– baloratzeko zehaztapen, diktamen eta proposamenari buruzko eskumenak dituen organoa izango da. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Zerga Administrazioa eta ekonomia eta administrazio alorretako erreklamazioen araubidea zuzendu eta gainbegiratzen ditu, horretarako jarritako organoen bidez. Finantza politikarekin eta finantza erakundeekin eta bai gizarte aurreikuspeneko erakundeekin ere harremanak dituzten jardute-alorren ondorio diren sailaren eskumenak bere gain hartzen ditu, eta bai zorpetzearekin, bermeak ematearekin eta Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiarekin zerikusirik dutenak ere.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

LEHENENGO KAPITULUA
SAILAREN EGITURA.

1. ATALA
ANTOLAERA OROKORRA

*1. artikulua.*– Egitekoak, eskumenak eta jardute-alorrak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardute-alorrak finkatzeari buruzko Lehendakariaren

A la Viceconsejería de Función Pública le corresponde asumir la planificación, dirección y coordinación, en el ámbito de la Comunidad Autónoma, de una política de recursos humanos estrechamente vinculada a unos servicios públicos de calidad. Asimismo, le corresponde programar y coordinar la implantación de mecanismos que permitan una ágil readecuación de las plantillas existentes a las necesidades derivadas de unos servicios públicos en constante evolución. A estos efectos, elabora, dirige y ejecuta la política de personal y se ocupa de su régimen jurídico y retributivo y, en general, de la gestión ordinaria del personal. A su vez, se ocupa de la elaboración de las directrices en materia de formación, de la relación y negociación con los representantes del personal laboral y funcionario y de la gestión de los servicios de prevención de riesgos y de otros servicios de carácter social destinados a mejorar las condiciones de trabajo.

La Viceconsejería de Hacienda y Finanzas, por su parte, es el órgano en el que se concentran las competencias y funciones que se derivan para esta Administración en lo que atañe a Concierto Económico, Cupo al Estado y Aportaciones de los Territorios Históricos, constituyéndose, al mismo tiempo, como el órgano competente en lo relativo a la definición, dictamen y propuesta de valoración de las transferencias de competencias y/o servicios, tanto activas como pasivas, que se den entre esta Administración y otras. Al propio tiempo, dirige y supervisa la Administración Tributaria de la Administración de la Comunidad Autónoma y el régimen de las reclamaciones económico-administrativas a través de los órganos establecidos al efecto. También se ocupa de las competencias departamentales derivadas de las áreas de actuación que tienen relación con la política financiera y las relaciones con las entidades financieras, las entidades de previsión social, así como con el endeudamiento, la prestación de garantías y el régimen de la Tesorería General del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de febrero de 2006,

DISPONGO:

CAPÍTULO PRIMERO
ESTRUCTURA DEL DEPARTAMENTO

SECCIÓN 1.ª
ORGANIZACIÓN GENERAL

*Artículo 1.*– Funciones, competencias y áreas de actuación.

1.– Al Departamento de Hacienda y Administración Pública le corresponden las funciones y áreas de actuación que se determinan en el artículo 7 del Decreto

ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuko 7. artikuluan zehazten diren egitekoak eta jardute-alorrak dagozkio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako gaiekin zerikusirik duen beste edozein eskumen ere bere gain hartuko du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren beste organo edo erakunderen bati espresuki eman ez bazaio.

3.– Aurreko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako eskumenen xede diren gaiak, aurkakoa berariaz adierazten denean salbu, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio nagusi eta instituzionalari dagozkionak izango dira.

4.– Honako hauek ere Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagozkio:

a) Hitzarmenak eta elkarlanerako eta lankidetzarako akordioak gauzatzea eta harremanak edukitzea, Estatuaren Administrazio nagusi eta instituzionalarekin, beste autonomia erkidegoekin, lurralde historikoekin eta toki korporazioekin, beste entitate eta pertsona publiko eta pribatuekin, artikulu honen aurreko epigrafeetan aipatu diren gaietan edo lege xedapenek edo Jaurlaritzak ematen dizkion beste batzuetan, indarrean dagoen legeriak horrela ezartzen badu.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura osatzen duten sailei orokortasunez esleitutako eskumen komunak.

5.– Artikulu honek aipatzen dituen gaiei buruz, administrazio jardunbiderako aldi guztiak Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagozkio eta, orokorrean, funtzio betearazlea gauzatuko du, dekretu honen edukitik edo modu berdinean bete behar diren beste xedapenetatik beste zerbait erabakitzen denean salbu.

***2. artikulua.***– Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura orokorra.

1.– Aurreko artikuluan adierazitako gaiei buruzko eskumenak gauzatzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Saila organo hauetan egituratzen da:

a) Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

b) Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetza.

1) Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza.

2) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

3) Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

4) Zerbitzu Zuzendaritza.

c) Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza.

8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

2.– Asimismo, el Departamento de Hacienda y Administración Pública ostentará cualquier otra competencia relacionada con las materias señaladas en el párrafo anterior que no hubieren sido atribuidas expresamente a otro órgano o ente de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma.

3.– Salvo indicación expresa en contrario, las materias objeto de competencia señaladas en los epígrafes 1 y 2 anteriores serán las correspondientes a la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma.

4.– Además, corresponderá al Departamento de Hacienda y Administración Pública:

a) La celebración de los convenios y acuerdos de colaboración y cooperación y el mantenimiento de relaciones con la Administración General e Institucional del Estado, con otras Comunidades Autónomas, con los Territorios Históricos y Corporaciones Locales, así como con otras entidades y personas públicas y privadas en las materias a que se ha hecho referencia en epígrafes anteriores de este artículo o en otras que, por disposiciones legales o por el Gobierno, se le encomienden, cuando así se establezca en la legislación vigente.

b) Las competencias comunes atribuidas con carácter general a los Departamentos en que se estructura la Administración de la Comunidad Autónoma.

5.– En relación con las materias a que se refiere este artículo, corresponden al Departamento de Hacienda y Administración Pública todas las fases del procedimiento administrativo, ejerciendo, en general, la función ejecutiva, salvo que se dedujese otra cosa del contenido del presente Decreto o de otras disposiciones de igual observancia.

***Artículo 2.***– Estructura general del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

1.– Para el ejercicio de las competencias relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Hacienda y Administración Pública se estructura en los siguientes órganos:

a) Consejera de Hacienda y Administración Pública.

b) Viceconsejería de Administración y Servicios.

1) Dirección de Informática y Telecomunicaciones.

2) Dirección de Patrimonio y Contratación.

3) Dirección de Recursos Generales.

4) Dirección de Servicios.

c) Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico.

1) Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

2) Aurrekontu Zuzendaritza.

3) Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

d) Funtzio Publikoaren Sailburuordetza.

1) Funtzio Publikoaren Zuzendaritza.

2) Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritza.

e) Ogasun eta Finantza Sailburuordetza.

1) Zerga Administrazioko Zuzendaritza.

2) Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritza.

3) Finantza Zuzendaritza.

2.– Aurreko lerroaldean aurreikusitako organoetako azpiko administrazio-unitateak, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren aginduz garatuko dira.

3.– Organo hauek Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikirik gelditzen dira, sortze-arauetan ezartzen den moduan:

a) Arbitraje Batzordea, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaz onartua.

b) Kontratazio Batzorde Nagusia, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaz arautua.

c) Bahitutako Ondasun eta Eskubideen Birreskuraketarako Batzorde Eragilea, urriaren 30eko 2/1984 Legeaz, ekainaren 18ko 256/1985 Dekretuaz eta otsailaren 16ko 39/1988 Dekretuaz arautua.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan bere zerbitzuak egin zituzten Langileen Lanbide eta Gozamen Eskubideak aplikatzeko Batzordea, maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintza Dekretuaz, irailaren 19ko 193/1983 Dekretuaz eta otsailaren 11ko 58/1986 Dekretuaz arautua.

e) Euskal Estatistika Batzordea, apirilaren 23ko 4/1986 Legeaz eta azaroaren 4ko 234/1986 Dekretuaz arautua.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioko Dokumentazioaren Balioespen, Hautapen eta Sarbide Batzordea, hain justu ere uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuaz eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko abenduaren 19ko Aginduaz arautukoa.

g) EAEko Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako lanpostuak Balioesteko Batzordea, apirilaren 12ko 80/2005 dekretuaz arautua.

h) Euskal Estatistika Kontseilua, apirilaren 23ko 4/1986 Legeaz arautua.

i) Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua, uztailaren 6ko 6/1989 Legeaz arautua, eta bai haren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamendua ere, 2000ko azaroaren 13ko Aginduz argitaratua.

1) Dirección de Economía y Planificación.

2) Dirección de Presupuestos.

3) Oficina de Control Económico.

d) Viceconsejería de Función Pública.

1) Dirección de Función Pública.

2) Dirección de Negociación Colectiva.

e) Viceconsejería de Hacienda y Finanzas.

1) Dirección de Administración Tributaria.

2) Dirección de Cupo y Aportaciones Financieras.

3) Dirección de Finanzas.

2.– Las unidades administrativas inferiores de los órganos previstos en el párrafo anterior se desarrollarán mediante Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública.

3.– Están, asimismo, adscritos al Departamento de Hacienda y Administración Pública en los términos que establecen sus normas de creación, los siguientes órganos:

a) Comisión de Arbitraje, regulada por el Decreto 136/1996, de 5 de junio.

b) Comisión Central de Contratación, regulada por el Decreto 136/1996, de 5 de junio.

c) Comisión Instructora para la Reversión de Bienes y Derechos Incautados, regulada por la Ley 2/1984, de 30 de octubre, el Decreto 256/1985, de 18 de junio, y el Decreto 39/1988, de 16 de febrero.

d) Comisión para la aplicación de los derechos profesionales y pasivos del personal que prestó servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco, regulada por el Decreto Legislativo 1/1986, de 13 de mayo, el Decreto 193/1983, de 19 de septiembre, y el Decreto 58/1986, de 11 de febrero.

e) Comisión Vasca de Estadística, regulada por la Ley 4/1986, de 23 de abril, y el Decreto 234/1986, de 4 de noviembre.

f) Comisión de Valoración, Selección y Acceso de la Documentación de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regulada por el Decreto 174/2003, de 22 de julio, y la Orden de 19 de diciembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública.

g) Comité de Valoración de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, regulado por el Decreto 80/2005, de 12 de abril.

h) Consejo Vasco de Estadística, regulado por la Ley 4/1986, de 23 de abril.

i) Consejo Vasco de la Función Pública, regulado por la Ley 6/1989, de 6 de julio, y su Reglamento de organización y funcionamiento, publicado por la Orden de 13 de noviembre de 2000.

j) Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordea, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaz eta 1998ko otsailaren 4ko Aginduaz arautua.

k) Zerga-Kideketarako Saila, maiatzaren 30eko 3/1989 Legeaz arautua.

l) Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia, urtarrilaren 24ko 14/1983 Dekretuaz arautua, urriaren 10eko 227/1989 Dekretuaz eta martxoaren 22ko 134/1994 Dekretuaz aldatua.

m) Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaz arautua.

4.– Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikirik daude:

a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE) administrazio erakunde autonomoa, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege-Jaurpideari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legez ezarritako moduan.

b) Euskal Estatistika Erakundea (EEE/IVE), Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean ezarritako moduan.

c) Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea (EJIE) baltzu publikoa, otsailaren 1eko 60/1982 Dekretuaz sortua, Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetzaren bidez.

d) Itelazpi, S.A. baltzu publikoa, zeina, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuordetzaren bitartez eta irailaren 23ko 215/2003 Dekretuaz baimendu baitzen.

5.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren ardurapean Zuzendaritza Kontseilua egongo da. Laguntza eskainiko dio sailburuari Sailaren politika gainbegiratu eta jarraitzeko lanetan, bere jarduketen plangintza orokorra gauzatzen eta izenda diezazkioten gainerako gaietan. Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuorde guztiek osatuko dute Kontseilu hori. Ogasun eta Herri Administrazio Saileko goi-kargudunak edo beste batzuk, hots, aztertu behar diren gaien arabera sailburuak bidezkotzat jotzen dituenak, parte har dezakete Zuzendaritza Kontseiluan.

2. ATALA
SAILBURUA ETA SAILEKO GOI-KARGUDUNAK

***3. artikulua.***– Ogasun eta Herri Administrazio sailburua.

1.– Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskume-

j) Junta Asesora de la Contratación Administrativa, regulada por el Decreto 136/1996, de 5 de junio, y la Orden de 4 de febrero de 1998.

k) Órgano de Coordinación Tributaria, regulado por la Ley 3/1989, de 30 de mayo.

l) Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi, regulado por el Decreto 14/1983, de 24 de enero, modificado por el Decreto 227/1989, de 10 de octubre, y el Decreto 134/1994, de 22 de marzo.

m) Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, regulado por el Decreto 81/2005, de 12 de abril.

4.– Están adscritos al Departamento de Hacienda y Administración Pública:

a) El organismo autónomo administrativo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Administración Pública (HAEE/IVAP), a través de la Viceconsejería de Función Pública, en los términos establecidos por la Ley 16/1983, de 27 de julio, sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública.

b) El organismo autónomo administrativo Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (EEE/IVE), a través de la Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico, en los términos establecidos por la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) La sociedad pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. / Sociedad Informática del Gobierno Vasco (EJIE), constituida mediante el Decreto 60/1982, de 1 de febrero, a través de la Viceconsejería de Administración y Servicios.

d) La sociedad pública Itelazpi, S.A., cuya creación fue autorizada mediante el Decreto 215/2003, de 23 de septiembre, a través de la Viceconsejería de Administración y Servicios.

5.– Presidido por la Consejera de Hacienda y Administración Pública existirá un Consejo de Dirección que le asistirá en la supervisión y seguimiento de la política del Departamento, en la planificación general de sus actividades y en cuantos asuntos le sean encomendados y que estará integrado por todos los Viceconsejeros del Departamento de Hacienda y Administración Pública. Asimismo, cuando lo considere oportuno la Consejera de Hacienda y Administración Pública en función de los asuntos a tratar, al Consejo de Dirección podrán asistir cualesquiera Altos Cargos u otras personas del Departamento.

SECCIÓN 2.ª
LA CONSEJERA Y ALTOS CARGOS DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 3.*– Consejera de Hacienda y Administración Pública.

1.– Corresponde a la Consejera de Hacienda y Administración Pública el ejercicio de las competencias es-

nak eta lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretua dela-eta Sailari dagozkion egitekoen eta jardute-alorren eremuan indarrean dagoen legeriak ematen dizkion guztiak dagozkio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari; dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardute-alorrak finkatzen dira.

2.– Honako hauek ere badagozkio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari:

a) Autonomia erkidegoen eta Estatuko Ogasunaren finantza–jardunen arteko koordinazio egokia lortzeko sortzen diren organoetan parte hartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkotza egitea hala behar denean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen arteko koordinazioa, beste herri administrazioen aurrean zerga eta finantza alorrean aztertu beharreko gaiei dagokienez; eta Ekonomia-Ituneak dakartzan baliabideak banatzeko sistemaren gai komunei dagozkienez. Eta, hori, Finantza Publikoetako Euskal Kontseiluari dagozkion egitekoak aintzat hartuta.

c) Saileko organo eta jarduera guztiak programatzea, sustatzea, zuzentzea eta kontrolatzea.

d) Deialdi publikoa egin ostean, izendapen askeko lanpostuak betetzea.

e) Indarrean dauden arauek Ogasun eta Herri Administrazio Sailari izendatutako egitekoak, baldin eta sail horretako beste organo bati edo horren menpeko beste erakunde bati eman ez bazaizkio; dekretu honetako 1. artikuluan aipatzen diren arloekin lotura duten eskumenak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioko beste organo batzuei eman ez zaizkienak.

*4. artikulua.*– Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuordeak.

Era orokorrean, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuordeei hauek dagozkie:

a) Sailaren ordezkotza egitea, sailburuak delegatuta.

b) Sailburuordetzako eta beraren menpe dauden zuzendaritzetako organo guztiak eta jarduketa guztiak koordinatzea, sustatzea, programatzea eta gainikustea; halaber, bere menpeko zerbitzu eta organoen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko jarraibideak eta zerbitzu-aginduak ematea.

c) Jardute-politikak prestatzea eta sailburuari proposatzea; halaber, aginduta dauzkaten egitekoen eremuan, berari laguntza ematea.

tablecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

2.– Corresponde, asimismo, a la Consejera de Hacienda y Administración Pública:

a) La participación y representación, en su caso, de la Comunidad Autónoma en los órganos que se creen para la adecuada coordinación entre la actividad financiera de las Comunidades Autónomas y de la Hacienda del Estado.

b) La coordinación de las Administraciones del País Vasco, en cuanto a los aspectos tributarios y de financiación a plantear frente a otras Administraciones Públicas, así como en cuanto a los aspectos comunes del sistema de distribución de recursos derivados del Concierto Económico, todo ello sin perjuicio de las funciones que son propias del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

c) La programación, impulsión, dirección, coordinación y control de todos los órganos y actividades del Departamento.

d) Proveer los puestos de trabajo de libre designación, previa convocatoria pública.

e) Las funciones que estando atribuidas al Departamento de Hacienda y Administración Pública en la normativa vigente, no hayan sido conferidas a otro órgano del mismo o a otro ente dependiente de aquél, así como aquellas competencias relacionadas con las materias señaladas en el artículo 1 de este Decreto que no estén expresamente conferidas a otros órganos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 4.*– Viceconsejeros/as del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

A los/as Viceconsejeros/as del Departamento de Hacienda y Administración Pública les corresponde, con carácter general:

a) La representación del Departamento por delegación de la Consejera.

b) La coordinación, impulso, programación y supervisión de todos los órganos y actividades de la Viceconsejería y de las Direcciones que dependan de la misma, así como la emisión de instrucciones y órdenes de servicio sobre la organización y funcionamiento de los servicios y órganos dependientes.

c) La elaboración y propuesta a la Consejera de políticas de actuación, así como la asistencia técnica a la misma en el ámbito de las funciones que tenga encomendadas.

d) Xedapenetarako egitasmoak proposatzea, ezarrita dagoen jardute-politikaren arabera.

e) Sailburuordetzaren menpeko organoen erabakien aurka jarritako errekurtsoak ebaztea.

f) Indarrean dagoen legeriak ematen dizkien egiteko guztiak; halaber, guztientzat izan daitezkeenak, orokortasunez zuzendariei izendatutakoak direlako.

*5. artikulua.–* Ogasun eta Herri Administrazio Saileko zuzendariak.

Ogasun eta Herri Administrazio Saileko zuzendariei, oro har, hauek dagozkie:

a) Sailburuaren eta sailburuordeen erabakiak gauzatzea eta delegatzen zaizkien eskumenak erabiltzea.

b) Sailaren ordezkotza egitea, sailburuaren delegazioz.

c) Zuzendaritzako jarduera guztiak programatzea, sustatzea, zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea.

d) Zuzendaritzako barne zerbitzuak eta lan sistemak antolatzea eskumendun organoek ezarritako arauekin bat eginik, eta, bereziki, espedienteen eta artxiboen erregistroak.

e) Errekurtsoei ebazpena ematea, indarrean dagoen legerian agindutako kasuetan.

f) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak berariaz ematen dizkienak; halaber, guztientzakotzat jo daitezkeenak, orokortasunez zuzendariei izendatutakoak direlako.

## BIGARREN KAPITULUA
## SAILBURUORDETZAK

### 1. ATALA
### ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU SAILBURUORDETZA.

*6. artikulua.–* Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetza.

1.– Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetzak, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren ardurapean, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari esleitutako eskumenak beteko ditu, alor hauetan: ondare eta kontratazioa, administrazio antolaera, sailarteko zerbitzuak eta argitalpenak, informazio sistemak eta telekomunikazio korporatiboak. Sailburuordeari, dekretu honen 4. artikuluan adierazitakoez gain, egiteko hauek dagozkio:

a) Administrazioa arrazionalizatu, hobetu eta modernizatzeari eta administratuekiko harremanak helburutzat daukaten proiektuei dagokienez, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoak emandako artezpideak buru-

d) La propuesta de proyectos de disposiciones, de conformidad con la política de actuación establecida.

e) La resolución de recursos que se interpongan contra resoluciones de los órganos que dependan de la Viceconsejería.

f) Las que les atribuya expresamente el ordenamiento jurídico vigente y las que tengan el carácter de comunes por venir atribuidas de forma general a los/as Viceconsejeros/as.

*Artículo 5.–* Directores/as del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

A los/as Directores/as del Departamento de Hacienda y Administración Pública les corresponde, con carácter general:

a) Ejecutar las resoluciones de la Consejera y los/as Viceconsejeros/as y ejercitar las atribuciones que les sean delegadas.

b) La representación del Departamento por delegación de la Consejera.

c) La programación, impulso, dirección, coordinación y control de todas las actividades de la Dirección.

d) La organización de los servicios internos de la Dirección y de los sistemas de trabajo de la misma, de acuerdo con las normas establecidas por los órganos competentes y, en especial, de los registros y archivos de expedientes.

e) La resolución de recursos en los supuestos previstos en la normativa vigente.

f) Las que les atribuya expresamente el ordenamiento jurídico vigente y las que tengan el carácter de comunes por venir atribuidas de forma general a los/as Directores/as.

## CAPÍTULO SEGUNDO
## DE LAS VICECONSEJERÍAS

### SECCIÓN 1.ª
### VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

*Artículo 6.–* Viceconsejería de Administración y Servicios.

1.– La Viceconsejería de Administración y Servicios, bajo la superior dirección de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, ejercerá las competencias atribuidas al Departamento de Hacienda y Administración Pública en materia de patrimonio y contratación, servicios multidepartamentales, archivos y actividad editorial, sistemas de información y telecomunicaciones corporativas, correspondiendo a su titular, además de las funciones señaladas en el artículo 4 del presente Decreto, las siguientes:

a) La ejecución de las directrices dictadas por la Secretaría General de Modernización y Administración Electrónica en relación con la racionalización, mejora y modernización de la Administración y los proyectos que

tzea; hain justu ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen egoitza eta eraikin administratiboen gaineko politika arrazionalizatu eta planifikatzeari dagokionez zerbitzu publikoaren premietara egokitzeko.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere erakunde autonomoetako Administrazioaren bulego eta zerbitzuak gainikuskatzea espazioaren banaketaren ondorioetarako.

c) Kontratazio Organoa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluan eta Informazio eta Telekomunikazio Sistemen Egitekoak eta Kudeaketa-Modalitateen Planifikazioa, Eraketa eta Banaketa arautu zituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuko 6. artikuluan beren-beregi Ogasun eta Herri Administrazio Sailari izendatutako eskumenen ondorioz egiten diren kontratazio-espedienteetan; eta baia aipatutakoon ondoriozko gastua —Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren kargurako izango dena— baimentzea.

2.– Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetzaren menpe, zuzenean eta hierarkiaren arabera, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza, Baliabide Orokorren Zuzendaritza eta Zerbitzu Zuzendaritza egongo dira.

7. ***artikulua.***– Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak, dekretu honen 5. artikuluan adierazitakoez gain, egiteko hauek izango ditu:

a) Informazio eta Telekomunikazio Sistemen Egitekoak eta Kudeaketa-Modalitateen Planifikazioa, Eraketa eta Banaketa arautu zituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuaren 6. eta 9. artikuluetan beren beregi Ogasun eta Herri Administrazio Sailari izendatutakoak, aurreko artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian aurreikusitakoa salbu.

b) Irratia eta telebista hedatzeko zerbitzu eroaleen kudeaketari dagozkionak eta horren azpiegiturak administratu eta ustiatzeari dagozkien ahalmenak.

c) Telekomunikazioetako administrazio-sare korporatiboa, Jaurlaritzak emandako artezpideen eta aplikagarriak diren xedapenen arabera.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak Interneten duen presentziaren ereduari buruzko ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuko 32. artikuluan berariaz esleitutakoak.

tengan por finalidad la relación con los administrados para su adecuación a las necesidades del servicio público en lo relativo a la planificación y racionalización de la política de sedes y edificios administrativos de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus Organismos Autónomos.

b) La supervisión general de las dependencias y servicios de la Administración de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos a los efectos correspondientes de distribución en planta.

c) Actuar como órgano de contratación en los expedientes de contratación derivados de las competencias atribuidas específicamente al Departamento de Hacienda y Administración Pública en el Capítulo V del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el artículo 6 del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones, así como autorizar el gasto derivado de los mismos que deba realizarse con cargo al presupuesto del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

2.– De la Viceconsejería de Administración y Servicios dependen directa y jerárquicamente la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, la Dirección de Patrimonio y Contratación, la Dirección de Recursos Generales y la Dirección de Servicios.

***Artículo*** *7.*– Dirección de Informática y Telecomunicaciones.

La Dirección de Informática y Telecomunicaciones ejercerá, además de las funciones señaladas en el artículo 5 del presente Decreto, las siguientes:

a) Las atribuidas específicamente al Departamento de Hacienda y Administración Pública en los artículos 6 y 9 del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones, salvo la prevista en el apartado c) del párrafo 1 del artículo anterior.

b) Las funciones relativas a la gestión del servicio portador de los servicios de difusión de radio y televisión, así como aquellas facultades inherentes a la administración y explotación de las infraestructuras soporte del mismo.

c) La gestión de la red corporativa administrativa de telecomunicaciones de conformidad a las directrices del Gobierno y normativa aplicable.

d) Las atribuidas específicamente en el artículo 32 del Decreto 108/2004, de 8 de junio, del modelo de presencia de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Internet.

*8. artikulua.–* Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza

1.– Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak, dekretu honetako 5. artikuluan adierazitako egitekoez gain, ondorengo hauek beteko ditu:

a) Ondare gaietan:

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen jabetza-aginteak erabiltzea, horien ordezkotza eta defentsa egitea epaiketetatik kanpo, Euskadiren Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeak espresuki bestelakoren bat ezartzen duenean izan ezik eta, beste organo edo erakunde batzuk izaten dituzten egiteko eta erantzukizunen kaltetan gabe, horiei atxiki edo eman zaizkien jabetza publiko edo pribatuko ondasunei dagozkienez.

2) Euskal Autonomia Erkidegoko jabetza pribatuko ondasun eta eskubideak kudeatzea eta administratzea, baldin eta horien erabilpena eta ustiaketa beste organo zein pertsona batzuei eman ez bazaie.

3) Euskadiko Ondareko ondasun eta eskubideen atxikipena, atxikipena kentzea, zertarakoa finkatzea, jare uztea, eta destino-aldaketa, eta higiezinen errentamenduak, Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legean ezartzen denaren arabera.

4) Euskal Autonomia Erkidegoari edozein eratako enpresa eta sozietatetan partaide izateagatik dagozkion eskubideak erabiltzea, beste organo bati espresuki izendatu zaizkion kasuetan izan ezik.

